



## Ez dakite Schiaparelli modulua Marten onik lurreratu ahal izan den

Europako Espazio Agentziak (EEA) ezin dezake oraindik baieztatu zer egoeratan dagoen ExoMars espazio-ontziko Schiaparelli modulua, Marten lur hartu behar zuenean aurreikusi ez bezala aritu ostean; horrenbestez, denbora gehiago behar du

datuak aztertzeko, baina ez du baztertzen behar bezala galgatu ezin izatea.

Moduluak asteazkenean lur hartu behar zuen planeta gorrian, baina Marteko atmosferan barrena egin behar zuen sei minutuko jaitsiera amaitzear zegoela komunikazioa galdu zen, eta ezin izan dute orain arte berreskuratu.

Schiaparelli Marteko atmosferaren goiko partean sartu zen, jausgailua ireki zuen bere abiadura galgatzeko, aurrealdeko ezkututik bereizi zen, baina ez zen jausgailutik askatu espero zen eran. Hala ere, sinetsita dago zehatz-mehatz jakin ahal izango dela zer gertatu den eta hura azaltzeko gai izango direla.

Seinalea galdu arte Schiaparellik igorri zituen datu guztiak ditu EEAk, eta datu horiek atmosfera zientifikoki aztertzeko erabili ahal izango dira.

Aurreikusita zegoen lurreratze-sekuentziaren arabera, Schiaparelli 14:42an (GMT) sartu behar zen Marteko atmosferan eta sei minutuz jaitsi behar zen. EEAREN esanetan, ondo sartu zen atmosferaren goiko partean. Jaisten hasi eta hiru minuturen ondoren, jausgailua ireki zen, Schiaparelliren abiadura 1.650 kilometro orduraino jaitsi eta modulua Marteko zaletik 11 kilometrora zegoela.

Lau minutu pasa ostean, azaletik 1,3 kilometrora eta 240 kilometro orduko abiaduran, jausgailua askatu behar zen, baina hori ez zen gertatu aurreikusita zuten legez, eta ez dakite zer egin zuen. Une horretan moduluaren jaitsiera 10 kilometro ordura galgatu behar zuten motorrak piztu behar ziren, baina hiru edo lau segundoz besterik ez ziren egon martxan; hortaz, baliteke abiadura ez moteldu izana Marteko azalean lurreratzeko adina.

## 18.851 haur jaio ziren iaz Euskadin, 2014an baino gutxiago

Euskadin 18.851 haur jaio ziren 2015ean, 2014. urtean baino %2,7 gutxiago, eta Bizkaian izan zen beherakada handiena. Erkidego osoan, erditzeak 18.442 izan ziren eta horietatik 17.959 bakunak, 472 bikoitzak eta 11 hirukoitzak.

Jaiotzen %81,4tan amak 30 urte edo gehiago zituen. Hala ere, talderik ugariena 30 eta 34 urte bitarteko emakumeena da, jaiotza guztien %37,7. Ildo horretan, urtez urte gora egiten ari dira 35 eta 39 urte bitartean eta 40 urte bete ostean ama izaten direnen kopuruak; iaz jaiotza guztien % 35,2tan amak 35 eta 39 urte bitartean zituen eta % 8,5etan, berriz, 40 urte baino gehiago. Alderantziz, 25-29 urte bitartekoen jaiotza kopuruak (%13,3) eta 20-24 bitartekoenak (%4,1) gutxituz doaz.



Amen batez besteko adina 33,4 urtekoa da. Dena den, nazionalitate espainiarra duten amek 34,1 urte dituzte batez beste eta atzerritarrek, ostera, 30,7 urte. Ezkontzatik kanpo jaiotako haurrak 7.838 izan ziren, jaiotza guztien % 41,6 eta 2014an baino % 1,4 gehiago. Bestalde, azken urteetan ezkontzatik kanpoko jaiotzak bikoiztu egin dira.

## Europako dinosaurik handiena Bilbon



Dinosaurioak hobeto ezagutzeko, 145 milioi urteko bidaia egiteko aukera eskaintzen die ikusleei UPV-EHUK Bizkaia Aretoan, 'Koloso jurasikoak' erakusketan. Hor, Europako dinosaurik handienaren (*Turiasaurus riodevensis*) eta AEBtik datorren *Camptosaurus* baten eskeleto osoen jatorrizko tamainako erreplikak ikusgai dira, besteak beste.

Bi eskeletoez gain, 11 informazio panel ere daude, Bizkaia Aretoan atzotik azaroaren 27ra ikusgai den erakusketan, eta bisita gidatuak eta hitzaldiak ere antolatu dituzte. Sarera doakoa da.



### Athletic multzoko azken postuan dago, Genken aurka galdu ostean



Athletic galtzaile atera zen ostegunean Belgikan KRC Genk taldearen aurka jokaturako partidari. Zuri-gorriek 2-0 galdu zuten, eta, ondorioz, etorkizuna ilundu zaie Europa Ligan.

Bi gol jaso arren, Iago Herrerin izan zen Athleticeko jokalaririk onena, Yeray Alvarezekin batera. Partidako azken minutuetan, atzelari gazteak min hartu zuen orkatilan, eta Athleticek 10 jokalarirekin amaitu zuen neurketa.

Aritz Adurizek bi aukera oso argi izan zituen lehen zatian bere taldea aurretik jartzeko, baina donostiarra ez zen ohi bezain zuhur ibili. Azkenean, Genkek egin zuen gola, atsedendialdiaren atarian, Brabecen bidez.

Zuri-gorriek ez zuten hobera egin bigarren zatian. Gainera, Aduriz txartel gorria jasotzeko zorian izan zen Buffeli kolpea eman ostean. Ondoren, San Josek eta Susaetak jaurtiketak egin zituzten, baina ez zuten asmatu.

Handik gutxira, Ndidik urrutitik jaurti zuen, eta belgikarren bigarrena egin zuen horrela. Azkenean, Genk nagusitu zen, eta, ondorioz, Athletic F multzoko azken postuan dago orain.

## Martín Berasateguiren jatetxea, munduko onena bigarren urtez jarraian

Interneteko TripAdvisor atariak sukaldari donostiarrak Lasarte-Oria herrian duen establezimendua saritu du luxuzko jatetxe onenaren alorrean. Web orrialdeak 953 erabiltzaileen iruzkinak hartu ditu kontua garailea hautatzeko. Publikatutako iruzkinen erdiak baino gehiagok (578) puntuaziorik gorena eman diote jatetxeari.

Sari hauek munduko hotel, hondartza, uharte, interesgune, ikuskizun edo jolas-parke, museo eta jatetxe onenak saritzen dituzte, erabiltzaileek TripAdvisor atarian airetzen dituzten iruzkin eta iritziak kontuan hartuta.



## Jadanik ireki dute Barakaldoko spa, uretako bakteriar garbitu ostean

Barakaldoko Udalak asteartean ireki du Lasarreko kiroldegiko spa, aurreko ostiralean uretan atzemandako bakteriar garbitu eta gero. *Pseudomonas aeruginosa* izeneko bakteriar agertu zen joan den ostiralea, eta itxi egin behar izan zuten.



### EGURALDIA

Doan sartu ahal izango da Guggenheim Bilbo Museon asteburuan. Modu honetan, 20. urteurreneko ospakizunak hasiko dira. Horrez gain, larunbatean, Bilboko Udal Musika Bandaren kontzertua izango da bertan. Halaber, BAD dantza eta antzerki jaialdiaren "Hariak" ikuskizuna izango da entzungelan: formatu handiko txotxongiloak eta hip-hop eta breakdance dantzariak. Igandean, berriz, Tom Gold Dance konpainiak "November Steps" koreografia aurkeztuko du. Baina euritakoa eraman beharko da, euria gero eta gehiago izango baita. **Larunbatean**, hegoaldeko haizea ibiliko da, tenperatura maximoak nabarmen igoko dira, baina hodeiak ugarituko dira eta baliteke tantaren bat botatzea. **Igandean**, hegoaldeko haizeak zakar joko du. Arratsaldean zehar indarra galduz joango da. Egunaren bigarren partean egongo da zerua hodeitsuago eta zaparrada batzuk botako ditu. Tenperatura beste gradu pare bat igoko da.